

NESTOR GARAI UEU-KO INFORMATIKA SAILEKO KIDEA

«Hedadura urria du Euskal Herrian software libreak»

Udako Euskal Unibertsitateko Informatika Sailak Software Libreari Buruzko I. Mintegia egingo du larunbatean; egitaraua atontzen aritu da, besteak beste, Nestor Garai da informatikaria



PABLO S. QUIZA

DEFINIZIOA


«Software librea ordaindu ez, eta gainera moldatu ahal izateko aukera ematen duena da»

ADIBIDEA

«Linux sistema eragilea da eredu argiena; ikasle baten burutazioa izan zen»

JARRAITZAILEAK

«Software librea filosofia bat da, eta katigatuta dagoen jendea guztiz katigatuta dago»

ASTRONOMIA. Ez dago oso argi zeren seinale diren

ESA / SOHO

Eguzkiaren inguruan ageri diren gas hodeiak ikertzen ari dira ikertzaileak

Astronomoen artean harridura handia eragin dute ESA-NASA SOHO espaziontziak Eguzkiaren inguruan atzeman dituen zenbait gas hodeiak —argazkian gezi batekin nabarmenduta ageri da horietako bat—. Segunduko 50-100 kilometroko abiaduran mugitzen diren hodeiak direla esan dute, eta Eguzkiaren norabidean higitzen direla, gainera, nolabait ere haren kontra. Horrek harritu ditu batez ere astronomoak. «Lehenengo aldiz ikusi nituenean harrituta geratu nintzen», azaldu du Europako Espazio Agentziako (ESA) ikertzaile Bernhard Fleck-ek. Hodeiok ikertuz Eguzkiaren eremu magnetikoa hobeto ulertu nahi dute.

Arantxa Iraola | DONOSTIA

Nestor Garai informatikaria da larunbatean UEUko Informatika Sailak antolatuta Eibarko Markeskoa jauregian egingo den Software Libreari Buruzko I. Euskal Mintegiaren arduradunetako bat. EGUNKARIARI arretatsu azaldu dizkio bilkuraren ingurukoak.

■ Software libreari buruz jardungo duzue larunbatean... Orokorrean?

Bai. Software librea ordaindu ez eta, gainera, moldatu ahal izateko aukera ematen duen softwarea da. Horri buruz hitz egingo dugu guk.

■ Software librearen adibiderik ezagunena zein da?

Linux sistema eragilea da eredu argiena. Normalean ezagutzen dena Windows sistema eragilea da, Microsoft etxearena. Linux ikasle baten burutazioa izan zen, programa sorta batengatik ez zuela dirurik ordainduko, eta berarentzako programa sorta berri bat egin zuen, baina beste filosofia batean. Programa horiek doanekoak izan behar zutela erabaki zuen, ez zela ordain-

du behar ez horiek lortzeko ez eta aldatzeko ere.

■ Filosofia horrek arrakasta handia izan du, ezta?

Bai, *linuxero* pila bat daude. Ordenagailuan Linuxa instalatu eta beren beharretara egokitzen dute. Horregatik beharbada Linux da Windowsek PCtan duen lehiakiderik handiena.

■ Zein abantaila ditu Windowsarekin alderatuz?

Windowsa erabiltzailearentzat kanpotik datorren zerbait da, erraldoi baten ekoizpena. Beti ikusten dira haren akatsak, eta beti ari dira bertsio berriak ateratzen... Beraz, erabiltzailea mugatuta dago beraien eskaintzetara. Linuxen, ordea, bakoitzak bere premietara egokitu dezake sistema. Eta dohanik. Izan ere, Interneten badaude toki batzuk fitxategiak transmisio baten bidez eskuratzeko.

■ Euskal Herrian oso hedatuta dago?

Ez. Hedadura maila urria du Euskal Herrian software libreak. Software gutxi egiten da orokorrean, eta libre oraindik ere guxiago. Dena den, talde batzuk ari dira martxan.

■ Eta erabilgarria izan daitekeela uste duzue, ezta?

Bai, esaterako, irakaskuntzan software librea izatea oso komenigarria izaten da, neska-mutilek eremu horretan ere gauzak egiteko aukera izan dezaten.

■ Mintegia Euskal Herrian software librean interesatuta dauden informatikarien topaleku izatea nahi duzue, ezta?

Bai, izan ere, alor horretan lanean dabilen jendea oso sakabanatuta dago, eta elkarren berri izatea nahi dugu.

■ Era horretan gerora begira software libreak hedapen handiagoa izan dezakeela uste duzue?

Bai, beno, software libre filosofia bat da, eta katigatuta dagoen jendea guztiz katigatuta dago, eta jende gehiago katigatzea lortzen du, gainera. Hil ez da hilko, ia bizimodu bat baita.

■ Zuen mintegiak behintzat arrakasta itzela izan du...

Jende askok eman du izena. Aretoan, ordea, soilik 60 lagun sartzen dira, eta atzera bota behar izan ditugu eskaera ugari.

LABURREAN**IKERKUNTZA****Hileroko oso irregularra duten emakumeek diabetesa izateko arrisku handiagoa dutela iradoki dute**

Bostongo (AEB) Brigham Women's Hospital erietxean egin-dako ikerketa batek iradoki du hileroko oso irregularrak dituzten emakumeek diabetesa izateko arrisku handiagoa dutela. Ikerketa *Journal of the American Medical Association* aldizkarian argitaratu dute. Nolanahi ere, argi utzi nahi izan dute bertan hilerokoen irregulartasuna eta diabetesa izateko arriskua beti ez datozela bat. Gainera, era osasuntsu batean biziz gero gaitza saihestea errazagoa dela gogoratu dute.

INGURUMENA**Euri azidoak Txinako lurraldearen %30 erasaten du**

Txinako lurraldearen %30en euria ez da ongi to- rria izaten. Izan ere euri gaiztoa da, euri azidoa. Dioxido sulfuroa euritan edo elurretan nahasten denean sortzen da euri azidoa, normalean kutsadura handia dagoen tokietan. Izadian kalte handiak eragiten ditu euri mota horrek, bai eta ukitzen duen orotan ere.

IKERKUNTZA**Kokainazaleen odolean agertzen den gai kimiko bat egokia izan daiteke beraiei laguntzeko**

New Yorkeko Cornell Unibertsitateko zientzialari talde batek ondorioztatu duenez, kokainazaleen odolean agertzen den gai kimiko bat baliagarria izan daiteke kokainaren ondorio gaiztoei aurre egiteko. Kokainak, esaterako, bihotzekoak izateko arriskua areagotzen du.